


## 16 ALDABIDE ETA ATXULO
## ALDABIDE Y ATXULO

## 16 ALDABIDE ETA ATXULO
## ALDABIDE Y ATXULO

**Ibilbidea Orozkoko Urigoiti auzotik abiatu eta euriteen garaian ikusgarria den Aldabideko ur-jauzira hurbiltzen da. Gero, pagadi eta larreak zeharkatuz, Itzinako harrizko harresiaren magaletik Atxuloko pasabide naturaleraino igotzen da.**

**El recorrido parte del barrio Urigoiti de Orozko y se acerca a la cascada de Aldabide, espectacular en época de lluvias. Asciende por la base de la muralla rocosa de Itzina hasta el paso natural de Atxulo, atravesando hayedos y pastizales.**

| | | |
|---|---|---|
| IRTEERA | Urigoiti (Eleskin) | SALIDA |
| HELMUGA | Urigoiti (Eleskin) | LLEGADA |
| LUZERA | 8,3 km | LONGITUD |
| GEHI.MALDA (+) | 707 m | DESNIVEL (+) ACUMULADO |
| DENBORA | 3 h 30 min | TIEMPO ESTIMADO |
| ZAILTASUNA | ertaina media | DIFICULTAD |






Aldabideko ur-jauzia
Cascada de Aldabide

## ITZINAKO LABIRINTO KARSTIKOA

Itzinako Biotopo Babestua Bizkaiko zonalde malkartsuenetako bat da. Aldabide iturburuaren gainean nagusitzen diren horma bertikalek, milaka eta milaka urtetan zehar uraren higaduraren ondorioz sortutako labirinto karstikoa inguratzen dute. Hainbat liken eta goroldio espeziek, paisaia nahasi honetako harriak janzten dituzte harrotasunez hazitako pago altuen artean.


Atxulo




www.gorbeiaeuskadi.com

**OROZKO**
Plaza Zubiaur
☎ 946 122 695

**MURGIA**
Plaza Bea-Murgia
☎ 945 430 440

EUSKADI BASQUE COUNTRY · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Bizkaia Foru aldundia diputación foral · Gorbeia · Gorbeialdeko Kuadrilla Cuadrilla de Gorbeialdea · Gorbeialde

## Ibilbidea

Urigoitiko auzoa eta gero aurkituko dugun **Eleskin** aparkalekutik abiatuko gara. Bertatik Itzinako “atxen” panoramika ederra ikusiko dugu, ibilbidearen helburuetako bat den Aldabideko iturburua oinetan duela. Pagomakurre eta Gorbeiaganerako bidea adierazten duen geziak adierazten duen bezala, pistan gora joaten hasiko dugu ibilbidea.

Behin Urigoitiko **ur depositua** ezkerretara utzita, bidegurutze batetara helduko gara non eskumako bidea jarraitu beharko dugun, eta apur bat aurrerago, hurrengo bidegurutzean, ezkerrekoa.

Ganaduarentzako **edanleku** baten ondoan dagoen alanbre-hesia zeharkatu eta pago motzen artean doan bidezidorretik jarraituko dugu. Zuhaiztitik irteterakoan, bide belartsu batek **Aldabideko iturburu**ra eramango gaitu.

Errekaren ondoan gaudela, ur-jauziaren goialdera iristen den bidezidorretik igo behar dugu aldapa. Haitzaren magalean dagoen pagadian barneratzen den bidetik jarraituko dugu, **Ordekoiturri** izena duen harrizko iturria atzean eta “atxen” hormak eskumatara utziz.

Pagoak desagertu eta elorriz betetako landa batera heltzerakoan, eskumatara biratu behar da ibilbidearen azken aldapa igotzeko. Gora begiratuz gero helburu dugun **Atxulo** ikusiko dugu, Itzina barrura sartzeko arrokan marraztutako zulo ikusgarria.

Abiapuntura itzultzeko, etorritako bide berdina jarraituko dugu Ordekoiturrira heldu arte. Puntu honetan, Aldabiderantz jaitsi beharrean aurrera egingo dugu **Egilezaburu**ko landazabala eta gero dagoen pistara heltzeko. Hortik gutxira PR-BI 33aren marka zuri eta horiak ikusten hasiko gara. Hauek jarraituz eta pista utzi gabe, Urigoitiko lehenengo baserriak ikusten hasiko gara. Azkenik, auzoa zeharkatzen duen errepidea ezkerretara jarraituta, Eleskineko atsedenlekura helduko gara.


Arluze

## Itinerario

Partimos del parking de **Eleskin**, que encontraremos pasado el barrio de Urigoiti. Desde el propio aparcamiento divisaremos una bonita panorámica de las “atxas” de Itzina, al pie de las cuales se encuentra el manantial de Aldabide, primera parada de este recorrido. Comenzaremos a ascender por la pista indicada por una flecha que dirige hacia Pagomakurre y Gorbeiagane.

Una vez pasado el **depósito de aguas** de Urigoiti que quedará a nuestra izquierda, llegaremos a un cruce donde habrá que tomar el camino de la derecha y, poco después, en el siguiente cruce, el de la izquierda.

Junto a un **abrevadero** para el ganado tendremos que cruzar la alambrada para adentrarnos entre hayas trasmochas. Al salir del pequeño bosquete, un camino herboso nos conducirá en continua ascensión hacia el **manantial de Aldabide**.

Una vez allí, junto al cauce del arroyo, tendremos que remontar la cuesta por el sendero que llega a la parte superior de la cascada. Debemos seguir por el camino que se adentra en el hayedo situado a las faldas de las peñas, dejando atrás la fuente de piedra de **Ordekoiturri** y las paredes de las “atxas” a la derecha.

Al desaparecer las hayas y llegar a las campas salpicadas de espinos debemos girar a la derecha, para subir la última pendiente y llegar a **Atxulo**, la puerta natural de acceso al interior de Itzina.

Para regresar seguiremos el mismo camino hasta llegar a Ordekoiturri. En este punto, en lugar de descender hacia Aldabide, avanzamos de frente hasta las campas de **Egilezaburu** y la pista que llega al sendero PR BI 33. Seguimos sus marcas amarillas y blancas hasta los primeros caseríos de Urigoiti y regresamos por carretera hasta al Área Recreativa de Eleskin.

## LABERINTO KÁRSTICO DE ITZINA

El Biotopo Protegido de Itzina es una de las zonas más agrestes de Bizkaia. Las verticales paredes que se yerguen sobre el manantial de Aldabide, rodean un laberinto kárstico creado por la acción erosiva del agua, a lo largo de miles y miles de años. El intrincado paisaje de su interior está tapizado por multitud de especies de líquenes y musgos que cubren las rocas calizas entre las que crecen altivas las hayas.


Itzina




track-a deskargatu

Ibilbidearen zatirik handiena seinaleztatu gabe dago. Ibilaldia segurtasunez egin ahal izateko, deskargatu track-a zure GPS edo mugikorrean.

La mayor parte del recorrido está sin señalizar. Para poder realizar la ruta con seguridad, descarga el track en tu GPS o smartphone.

descárgate el track

## GOGORATU! ¡RECUERDA!

**Ingurunea, flora eta fauna errespetatu.** Zarata egitea ekidin, ez egin surik eta zure txakurra lotuta eraman.

**Ingurunea garbi mantendu.** Ez utzi zaborra bertan; utzi edukiontzietan edo eraman ezazu.

**Seinaleztapena errespetatu.** Prestatutako lekuetan aparkatu, bideak erabili eta atakak itxi.

**Arreta artzai txakurrekin**, utzi bakean, lanean daude. Hurbiltzen badira, lasai egon, ez egin korrikarik eta eraso bezala hartu dezaketen mehatxuzko keinuak ekidin.

Informazioa eskatzeko edo edozein arau-hauste salatzeko zonaldeko informazio bulegora hurbildu zaitezke.

**Respeta el entorno, la flora y la fauna.** Evita hacer ruido, no hagas fuego y lleva atado a tu perro.

**Mantén limpio el entorno.** No abandones basura; depositala en los contenedores o llévatela.

**Respeta la señalización.** Aparca en lugares habilitados, utiliza los caminos y cierra las cancelas.

**Atención a los perros pastores**, no los molestes, están trabajando. Si se acercan, mantén la calma, no corras y evita gestos amenazantes que puedan interpretar como un ataque.

Para solicitar información o denunciar una infracción puedes acudir a las oficinas de turismo de la zona.

## ADI!

· Ganadua dagoen zonaldeetan, ez irten markatutako bideetatik animaliengana hurbiltzeko. Zerbait egin nahi diezula pentsatu eta beldurtuko dira. Ezin da jakin beldurtutako animalia batek nola jokatuko duen eta min hartu dezake edo zuri min eman.

· Etxeko ganaduaren ongizatea errespetatu eta utzi abeltzainei haien lana egiten, eskertuko dizute. Gogoratu, neurri handi batean, paisaia hau haien lanari esker gozatzen dugula.

## ¡ATENCIÓN!

· En las zonas de pastoreo de ganado, no te salgas del sendero marcado para acercarte a los animales. Pensarán que les quieres hacer algo y se asustarán. Un animal asustado es imprevisible y se puede hacer daño o hacerte daño a ti.

· Respeta el bienestar del ganado doméstico y deja a los ganaderos y ganaderas que hagan su trabajo, te lo agradecerán. Recuerda que el paisaje que disfrutamos se debe, en gran parte, a la labor que realizan.